



Egilearen eskutik

Euskal Hizkuntza eta Literatura

Elgoibarko Euskara Mintegia

Sarrera HIZPIDEk hala eskaturik, gogo onez idazten ditugu lerrook, geure Mintegiaren joran, asmo, arregura eta kezken berri emanez.

Bost lagun izan gara geure testulanean sinatzaile: lau gizonezko, eta emakume bakarra; guztiak institutuko irakasleak. Elkarren arteko ezagutza eta lagunartea ikastolaren inguruan, oposiziotan, EGako tribunaletan eta abar sortua dugu.

Gure taldea sortu zenean, 1985ean, Ertainetako euskararen irakaskuntzan metodorik ez zen, eta puri-purian zebilen guztion gogoan ikasmetodoren baten beharra. Premia gorria zen, beraz, euskara bera ere ikas-materia bezala irakaskuntzan umegorri akaso ez baina, harro ibiltzeko moduan ere ez baitzegoen, ezinbestean. **D** ereduko eta **A** ereduko a ze izendakera mordoiloa! ikasleekin gertatzen zen hori. **B** eredukoak, berriz, Irakaskuntza Publiko Ertainetan ezagutu ere apenas egiten ziren *pizti motak* genituen.

Giro horretan, bada, iritsi zen Euskal Gobernuaren testugintzarako deia 1985eko udaberrian. Esan genezake gure taldearen sortzea horren ondorioz gertatu zela: hitz egin genuen, elkar hartu, eta lanerako grina ere bagenuela eta, urte bereko udazkenean, ikasturte berriarekin batera, egitekoari ekin genion.

Aurkia ala binperra

Lehen asmoak, gogoetak, kontsultak, zirriborroak, eta planoak egin genituen, eta txanpona aidera bota genuen *aurkia* ala *binperra* –berriki Matias Múgicak itzulia duenez– ateratzen zen adi, zein argitaletxetara jo erabakitzeko, esku beteko amets haiek eskainiz.

Halabeharrak egin gintuela Elkar-en morroi esan genezake, hainbestez.

Eta, esan bezala, lanari ekin genion. Gurean taldearen eta inguru-min-

guruaren izenak ez dira inoiz problema gertatu, alegia, asepsiaz isolatu genituen leiho-ertzetako zirrikituak eta usain gozo urriko jeneroz baliatu izan gara beti. Gure akorduan, izenak direla eta eztabaida-zirkinik ere ez da egin; soilago ezin eta *Elgoibarko Euskara Mintegia* deritzogu geure buruari, eta *Euskal Hizkuntza eta Literatura* (EHL) uztari, ale bakoitzak, sei ere badira eta, bere zenbakia daramalarik.

Nondik edan genuen? Zein bibliografia eskuetaratu genuen lanean abiatzean? Euskaraz erabil zitezkeenaz gainera –ez asko– erdaretako ikasmetodo parekideak ere behin eta berriro aztertu genituen, *Lengua y literatura* sailekoak alegia, gaztelaniazkoak gehienbat, baina baita italiarra edo frantseseko jeneroa ere, erraz txastatzekoa baitzen bai *produktua* eta bai *ekoizleak* antzerakoak genituela, tamaina batean behintzat, hizkuntza horietan eta gurean.

1986an hasi eta 1989ra bitartean urtez urte, liburuki bana eman dugu argitara, beti titulu beraren pean eta zenbakia aldatuz.

Lau liburuen erdi-erdian –kronologikoki– *Hiztegia Aberasten* deritzan digresio jolastaritzat edo jo izan duguna idatzi genuen, jatorrizko programa eta asmoetatik at. Sasoian iritzi genion geure buruari, eta erlojupeko karreran bezala egin genuen lan. Orain hor dago: ikasleek hiztegia lan dezaten egindako ariketa-bilduma erabilgarria da; hala uste dugu guk behintzat.

Editorialak zenbateko tiradak egin dituen ere jakin nahi du HIZPIDEK. Elkarrek erantzuten digunez, honako tirada hauek egin dituzte orain arte:

EHL (1)	22.000 ale;
EHL (2)	13.900 ale;
EHL (3)	12.000 ale;
EHL (UBI)	8.000 ale;
Hiztegia Aberasten	4.500 ale;
EHL (1) (berria) (1992)	5.000 ale;
EHL (2) (berria) (1993)	5.000 ale.

Testugintzaren jardunkizun honetan gure ardurarik eta kezkarik behinean, oro har, kurtsoz kurtsoko liburuki bakoitzaren inguruko planteiamenduak, nondik-norakoak, zer-nolakoak eragin dizkigu.

Programazio ofiziala berez ez da laburra, luze antzekoa baizik. Eta *hizkuntza* alde batetik, eta *literatura* bestetik landu beharra eskatzen du.

Mintzapraktika

Institutuetan eta Ertainetako ikastetxeetan oro har, *Seminario de lengua y literatura española* epigrafeak *lengua*-ko orduak ditu alde batetik, eta *literatura*-ri dagozkionak bestetik, zeinek bere ordu eta irakasle erdi-espezializatuak izan ohi dituelarik. Guk guztiori BBBko 1. eta 2.ean asteen lau ordutan ematen ditugu, eta BBBko 3.ean eta UBIn hiru ordutan; guztia *Euskara* esanda biltzen da. Eta eredu bakoitzak (A-k eta D-k) bere programa propioa du, jakina.

Biziki kezkatzen gintuen eta gaituen bestelakorik ere bazegoen lehen, eta badago orain ere, baina. Esaterako, gure ikasleek gaztelaniarako duten joera guztiz ezaguna da, bai irakaskuntzan eta bai irakaskuntzaz kanpo. Eta hainbestean, egoera horri ahal genuen neurrian aurre egin beharra geneukala eta, mintzapraktikako jardunez ere hornitu nahi izan ditugu geure testuak.

Edozein hizkuntza normaletan *Hizkuntza eta Literatura* arloak jorratzen dituzten testuetan *entzumena* eta *mintzamena* ez dira punta-puntako ardurak izan ohi, ortologiaren ikuspegi oso konkretutik ez bada, eskolan erabiltzen den hizkuntza kalean eta etxean jasotzen dutelako ikasleek. Gurean, jakina denez, *mintzamenari* buruzko ardura min eta latzak *mintzapraktika* bezalako izen eta beharrian potoloak ere eragin ditu. Eta hor, jakina denez, *hitz egitea –hitz eragitea* ere bai askotan– da lehen ardura, eta *zuzen* hitz egitea bigarrena, hizkuntza komunikabide ez baina banderizo politikoen arteko ikurrin egina dugun herri honetan.

Hauek honela, Elgoibarko Euskara Mintegikook normal bihurtu nahi izan ditugu geure testu-lanetan ez *irakurmena* eta *idazmena* lantzea bakarrik, baizik eta baita *mintzamena* ere. *Entzumena* da atzenduxea geratu zaigun ahalmena, akaso.

Testu lodiak

Gure egarriaren berdindu nahia ez da honetara mugatu, ordea. Hona hemen lanaren beste eragileetariko bat: Euskara ikasmateria *berria* izaki, ariketa, joko, eta baliakizunak urri ote genituen harrak jotzen gintuen. Ardurarik bizenaz, beraz, testuak materialez hornitu nahi genituen. Eta aski da begiratzea guztiek ere daukaten orotako ariketa-erreskada, hiztegia barne, ustezko –ikusitako eta entzundakoan oinarritutako– uztezko huts hori betetzen gogotik saiatu garena ulertzeko.

Halako grinaz aritu ginen, non *flakiyak juak* aterako zitzaizkigula bildur izan genituenak, *loriyak juak* erditu genituen; hau da, ariketetan batez ere aukera zabalez hornituak; hain zabalez, non finaren finez, irakasle asko testuok bukatu ezinik ibili izan baita ikasturte hauetan zehar.

Irakasle horientzat behin eta berriro emana dago liburu bakoitzaren sarreran ariketa guztiak ez egiteko abisua; aukeratzeko, apartatzeko eta egokienak erabiltzeko erregua.

Guztionekin batera, egia da ikaslearekiko exigentzia edo eskakizun-graduan gure ustez eskatu behar bezalako maila batetik ez jaisteko kontsigna edo goiburuari eutsi diogula; beti ere zailtasun-apur bateko hizkuntz estrukturak, hitz, aditz eta gainerakoak beti gerorako uztea ona ez delakoan, besteak beste, unibertsitatera iritsiko ez diren ikasleentzat *gerorik* izango ez delako ikasketen arlo honetan, eta eskolan jasoko duten hizkuntz ezagutza-mailarik altuena Ertainetan lortutakoa izango dutelako. Guztionek ikasleari, pentsa daitekeenez, errazerako bidea ixten ez badio ere, estutu behintzat egiten dio.

Hainbeste lanorduren emaitza ditugun testuliburuez bereziki irakasleek zer iritzi duten jakinmin eta interes nabarmenakoa dugula esan beharrik

ez dago. Nork ez du bere lanari buruzko iritzia jakiteko grinarik? Bada, gu ere interesatu izan gara gorabehera horretaz. Zuzen eta zeharka galdetu izan dugu, eta zehazki honako hauxe gehienik: zertan egiten dute huts liburuek? Zer dute gaizki? Zer oker planteaturik? Zer zuzenkizun?

Gisa da aitortzea erantzunik zorrotzena idazmakina, borragoma, arkatz eta boligrafo-sorta bana, eta 140.000 pezeta Gasteiztik iritsi zitzaigula lehen liburukia argitaratzeko baimenaz batera. Dударik gabe, arretaz eta begi zoliz begiratuak izan ziren gure planteamenduak. Esker onez hartu genuen kritika hura, kuriositatez eta beldurrez ere bai. Animo eta bihotz emateko hitzik ez zen han falta.

Gainerakoan ez da erraza, dirudienez, aipamen orokorretatik haratago iritsiko den kritikarik lortzea; eta honetan gara; gugana behintzat inoiz ez da Juan Gartzia bere luma zorrotzaz aipatzen duen *jakinkilo iritzijario* horietakorik iritsi.

1989an aurkitzen gara une honetan; BBBko hiru kurtsoetako eta UBiko ikasmaterialak kaleratuak daude. Estatistika-zaleentzat bi mila berrehundik gora orrialde dira.

Lan handia; poza ez makalagoa. Nekearen, beti-berdinaren lehen zafra da eta astinaldiak ere une honetantxe jasan genituen, serio antzean edo, seguruenik. Denbora eta lasaitasun xurgatzaile gertatzen da gogobetez eta intentsitatez eginiko edozein lan, testugintza barne; eta sumatu egin genuen; testugintza, gainera, institutuko lan arruntaz gain bizkarreratu dugun egitekoa baitugu.

Urte beteko atsedean edo atsedean-modukoa egitea ezinbestezkoa genuen. Eta horixe egin genuen: lasaitu.

Gure lasaitze-aldiak –lasaitu nahiak, hobeto– baina, ez zuen luze iraun. Egon ere, ametsak amets, ez geunden ez bare eta ez ibi. Gure egonezinenaren arrazoi nagusia hauxe zen: lanari, egindako lanari –eta, batez ere, EHL (1) -i– ez genion gogobeteko irizten, eta, jakina, ordaina behar zuela generitzon.

Gure lanaren kritikarik zorrotzena geure konformagaiztasuna eta batez ere lotsa gertatzen zitzaizkigun.

Eraberritzea

Erreformaren atarian ere bageunden, eta argibidez eta informazioz hornitu beharrak bete-bete harrapatu gintuen.

Lasaitu alde, testugintzaz aparte ibiltzea pentsatu genuen ikasturtean ere bilerak egiten segitu genuen, bibliografiak arduratuta; eta, idatzitako lanetan bazela zer zuzendurik, eta proiektu eta egitasmo berrietan abiatu ginen buru-belarri.

Zein akats zituen, gure ustez, EHL (1)-ek? Hona:

- Luzeegia, hobe beharrez izanda ere, luzeegia gertatzen zen.
- Zenbait teoria azalpenek erraztea onartzen zuen, ulergarritasuna ere handiago eskainiz.

- Zenbait ariketak kentzea merezi zuen, zailak gertatzen zirelako.
- Planteamendu orokorra genuen aldatu beharra, arintasun eta malgutasun handiagoko etekina lortuz.
- Begietarako ere produktu erakargarriagoa behar genuela uste genuen.

Hauetxek dira laburturik testuak aldatu beharra zuela pentsarazi ziguten arrazoi nagusiak.

Beraz, etena ez baina lan arintze-aldia besterik gertatu ez zen ikasturtearen ondoren, testu guztiz berri-berriak egiteko erabakia hartu genuen.

Aipatu bezala, Erreformaren eragina eta Erreformarekiko ardura ere eskola-mundura oso zabaldua zegoen. Erreformatik hurbil-hurbil zen lana geneukan egin beharra, beraz.

Eta hala hasi ginen berriro ere lanean; ez bostok, haatik, oraingoan. Lagunetako batek, taldekide segituz, egunean eguneko eginbeharretik libratzea eskatu zuen lana gogorra ere bazela eta; geroztik Mintegiak laukotean dirau.

Idazki hau idazten dugunean, 1993ko udan, egoera honetan dugu geure zeregina:

1992an EHL (1) guztiz eraberritua eman genuen argitara. (14-15 urtetako ikasleentzat).

1993an EHL (2) atera da, irailean hasten den ikasturte berrirako. (15-16 urteko ikasleentzat).

Kritika

Zer aldatu dugu? Zertan berritu dira gure lanak?

Hona hemen erantzuna:

- Lehenik, laburtu egin dugu materia orokorra; programa arinago darabilgu, beraz.
- Bigarrenik, ikasgaitan gabe, unitateetan antolatu dugu edukinaren banaketa. Zortzi unitate, alderdi teorikoa eta praktikoa elkarloturik dituztenak.
- Liburukien formato-aldaketa ere erabatekoa gertatu da: *testuliburua* dago alde batetik; ebaluaziorik ebaluazioko *lan-koadernoak* (4) bestetik; *kasetea* ere bada, kantu eta irakurketaz beterik; eta irakasleak *gida* dauka bere lanaren lagungarri.
- Alderdi praktikoari pisu handia eman diogu; eta *lan-koaderno* deitu ditugunen bidez praktikarako bidea eman nahi izan diogu ikasleari: hizkuntza ikastetxean eta kalean erabiltzera animatu nahi dugu, kaleko egoerak ezagutu eta euskaraz erreakzionatzen eta moldatzen asma dezala nahi dugu.
- Ez dira ez ariketak ez azalpen teorikoak falta; baina, batez ere, teoria erraz, nekerik gabe ikasteko eran jarri dugulakoan gaude.

- Eta gure ustez oinarrizkoena eta printzipalena dena: jardun berri hone-tan, irakaslea gabe, ikaslea bera egin nahi izan dugu ikaste jardunaren, eskolako praktikaren *protagonista*.

Eta une honetan gaude. Kurtso beteko etena egin asmo dugu 1993-94 ikasturtean zehar, EHL (2) berria Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken kurtzorako baita, eta aukerako Batxilergo berrirako ez baitago ezer zehatzik argiturik.

Balorazioa

HIZPIDEk eskatzen digu hasi eta egindako lana balora dezagula. Hona hemen gure juzkua, bada.

Testugintzako gure jardun osoa Irakaskuntza Ertainetan zen hutsunea betetzea izan da. Alor horretan propio bertarako pentsatutako testurik ez zen lehen; orain bai.

Ezin ahaztu ditugu lehenak izateak bere baitan daramatzan mugapenak ere: bateko, eskarmenturik eza; besteko, osagaien arteko oreka-zailtasuna, etab.

Lan eta ariketa zailtasun-malgutasun jokoan asmatzea garrantzi handi-koa da. Ikasle-irakasleei non aukeratua eman nahian, behin baino gehia-gotan goregi jo ote dugun beldur gara.

Edukin ugariz, ugariegiz akaso, hau da, emaitza hornituegia ote dugun ere behin baino gehiagotan pentsatu izan dugu.

Ezin dugu ahaztu ikasmetodoa, edozein delarik ere, behin behinekoa dela. Eta gure kasu konkretuan, gainera, hori areagotu egiten da, bai Erreformak berak eragiten diharduen zurrunbilo nabarmenagatik, bai eta irakaskuntzaren munduak, bere txikian ere bizi-bizia delako, ezer finkorik eta betikorik ez duelako.

Balioespenen ildoan bada aipatzea merezi duen bestelakorik, baina. Goratxoago idatzi bezala, Espainiar Hizkuntza eta Literaturako Minte-gian ederki bereizten dituzte *hizkuntzaren* estudioari eta *literaturarenari* propio emandako orduak. Banaketa honek dudaz kanpo dauden abantailak ditu: ordu gehiago, sakontzeko aukera anitzago, gauzak astiroago aztertzeko aukera etab. ematen baititu. Noiz emango zaio trataera bera euskarari Irakaskuntza Ertainetan? Hau da, **D** ereduko ikasleen artean –letretako aukera egiten dutenen artean bereziki– noiz nabarmenduko dira hizkuntzari eta literaturari, zeini bereak, eman beharreko ordu bereziak? XX. mende honetan behintzat badago euskal literaturaren inguruan zer irakurria eta ulerterraz egiten den literatura, ur handiagoe-tara gabe. Gaurko irakurle gaztearentzat gehiegiko aukerarik ez dugu, akaso, baina daukaguntzua –literaturaren eremuan beti ere– ezagutzea merezi duelakoan gaude gu. Ala Konstituzioak agintzen duen berdintasuna dela eta keinuka hasi behar ote dugu? Ederki legoke!

EHL berrien inguruko baloraziorik egiteko, seguruenik goiztxo da oraindik, eta gerorago uztea hobe izango da.

Testugintza –afizio ordutan egindako testu-langintza bereziki– lan gogorra ez ezik oso gogorra ere bada, latza, sufriarazlea, eta esker gaiztokoa. Baina, era berean gisa da aitortzea egindakoak, egin ondoren, halakoxe poza ematen duela ere.

Elgoibarko Euskara Mintegiko taldekideok, tartean ezeren okerrik sortzen ez bada behintzat, ekin genion lanari eustekotan gara. Esan gabe doa geure arteko harremanak oso onak direla; horrela ez balitz, ezinbesteko talde-giroa aspaldi zapuztua geneukakeen, eta giroarekin batera lana ere bai.